

EBAZPENA, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena, 2019ko, 2020ko, 2021eko eta 2022ko lan-eskaintza publikoei dagozkien enplegu publikoa egonkortzeko ezohiko eta ohiko prozesuak lan-kontratudun langile finko gisa sartzeko zuzenduko duten epaimahaien kideak izendatzeko dena.

Errektorearen 2022ko urriaren 20koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako funtzionario eta lan kontratuko langileentzako 2019ko, 2020ko, 2021eko eta 2022ko enplegu publikoaren eskaintzei dagozkien oinarri orokorrak bai eta funtzionarioen barne-sustapeneakoak ere argitaratzea agindu zen.

2022ko azaroaren 30ean argitaratu ziren UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileen I, II, III eta IV taldeetarako enplegu publikoa egonkortzeko ezohiko eta ohiko prozesuen bidez lan-kontratudun langile finko gisa sartzeko hautaketa-prozedura arautzeko oinarri espezifikoa.

Zazpigarren oinarri orokorrean zehaztutakoari jarraituz, UPV/EHUko gerenteak emandako erabakiaren bidez izendatuko dira hautaprobetako epaimahaietako kideak.

Arestian adierazitakoagatik eta errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko erabakiaren bidez (2021eko otsailaren 12ko EHAA) pertsonalaren alorrean eskuordetu zaizkidan ahalmenez baliatuz,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.-UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileen I, II, III eta IV taldeetarako enplegu publikoa egonkortzeko ezohiko eta ohiko prozesuen bidez lan-kontratudun langile finko gisa sartzeko sartzeko zuzenduko duen epaimahaiko kide titullarrak eta ordezkoen izendapena egitea.

	Titularra	Ordezkoa
Presidentea	Javier Manzanares Araico	Lorena Fernández López
Mahaikideak	Juan Iturbe Barrenetxea José Gerardo Muñoz Martínez Aitor Barrenetxea Lázaro	Susana Greño Aranaga Erlantz Julián Antón María Romero Pérez
Idazkaria	Oskar Prado Urquijo	Elena González-Pinto Arrillaga

Bigarrena.- Erabaki hau deialdi espezifiko bakoitzaren webgunean argitaratzea, horretarako gaitutako UPV/EHUren web-orritik sar daiteke orri horretara (<https://www.ehu.eus/eu/web/azp/epe-lan-kontratudunen-ezohiko-prozesua>) ezohiko prozesurako, eta <https://www.ehu.eus/eu/web/azp/epe-lan-kontratupekoen-ohiko-prozesua> ohiko prozesurako eta deialdi espezifiko bakoitzaren web-orrian, baita UPV/EHUko iragarki-oholetan ere.

Errektoreak 2021eko urtarrilaren 28ko erabaki bidez eskumenak erabiliz (2021eko otsailaren 12ko EHAA)